

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

167. zenbakia

Data 2012-08-31

11 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA

35/2012 FORU DEKRETUA, abuztuaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

35/2012 FORU DEKRETUA, abuztuaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duena.

Abenduaren 26ko 5/2011 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituenak, zenbait zerga aldatu zituen, eta, besteak beste, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Foru dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldaketa horietara egokitzea du xede nagusi. Horixe da, hain zuzen, erregelamendu horretan jasota dauden zenbait gairen erregulazioa aldatzeko arrazoiak.

Aurrenik, I. tituluaren edukia ezabatzen da, hain zuzen ere langile tokialdatuen araubide berezia arautzen duena; izan ere, zergaren foru arauak berak bertan behera utzi du erregulazio hori 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Dena den, esan beharra dago foru arauak araubide iragankor bat ezarri duela araubide bereziaren aplikazioa data hori baino lehen aukeratu zuten zergadunentzat.

Orobat, ezabatzen dira gizarte aurreikuspeneko zenbait sistematik kapital moduan jasotako bigarren eta ondorengo diru kopuruak 100eko 60an integratu beharra ezartzen duten xedapenak, horrelako integrazio portzentajea kasu horietan aplikatzeko aukera desagertu denez gero.

Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik oinarri ezargarria murriztea arautzen duten prezeptuak murrizpenen araubide berrira egokitzen dira.

Alde horretatik, arautzen da zer baldintza bete behar diren jarduera ekonomikoaren titularrak enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen propioak kontribuzio gisa tratatu daitezzen zergaren oinarri ezargarrian murrizteari begira. Horri dagokionez, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legea onartzearen ondorioz, oraingo exijentzia da borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen aldeko ekarpen propioak enpleguko gizarte aurreikuspeneko planei edo lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planei egin behar zaizkiela.

Orobat arautzen da nola jokatu behar den ekitaldiko oinarri ezargarrian murriztu ez diren gehiegizko ekarpen eta kontribuzioak murrizte aldera. Lehenik, haien antzinatasunari begiratuko zaio, eta, bigarrenik, kontribuzioek lehentasuna izango dute ekarpenen gainean.

Kenkariari dagokionez, ohiko etxebizitza erosteagatik aplikatzen den kenkariaren zenbait prezeptu egokitzen dira zergaren foru arauak ezarritako portzentaje eta muga berriekin koordinatuta egon daitezzen.

Amaitzeko, doiketak egiten dira lan etekin irregularren gainean aplikatzen diren konturako ordainketen erregulazioan, eta helburua da etekin irregularren baterako mugaren eragina kontuan izatea etekin horiek muga hori gainditzen dutenean.

Bestalde, 5/2011 Foru Arauan onartutako zenbait prezeptu erregelamenduz garatzea komeni da, bertan erregulatzen diren alderdi batzuk zehazte aldera. Haien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazia salbuesteko erregulazio berriari dagozkionak, edo gizarte aurreikuspeneko sistemetatik kapital moduan jasotako diru kopuruak 100eko 60an integratzeko araubide iragankorarekin lotutakoak. Azken hori, izan ere, aplikatuko da baldin eta kontingentzia, kasu edo arrazoi berberetatik eratorritako diru kopuruak 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen integratu badira 100eko 60ko portzentajea.

Lehen kasuan, ohiko etxebizitzak zenbat eskualdaketa izan dituen zehazteari begira –haien ondare irabaziaz zergaren foru arauko 44.3.c) artikuluan ezarritako salbuespena biltzeko direnean–, foru dekretu honek dio 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako eskualdaketa ez direla konputatuko.

Bigarren kasuan argitzen da nola dagoen osatua jasotako zenbatekoa eta zer ekarpen konputatu beharko diren batez besteko iraunaldia kalkulatzeko.

5/2011 Foru Arauaren onarpenak ekarritako aldaketek gain, foru dekretu honek beste zenbait aldaketa ere sartzen ditu, batzuk guztiz teknikoak. Haien artean aipagarria da kenkarirako eskubidearen galera arautzen duen artikuluan sartutakoa, haren helburua baita galera hori ez izatea aplikagarria zergadunaren heriotzak haren ohiko etxebizitza izan behar zuena erosteko prozesua ezin burutzea dakarrenean.

Azkenik, abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, amaierako bigarren xedapenean dio Gipuzkoako Foru Aldundiak behar diren xedapen guztiak eman ditzakeela aipatutako foru araua garatzeko.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Honako aldaketak sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretu bidez onartutakoan:

Bat. I. tituluko izenburua ezabatzen da, eta edukirik gabe uzten dira 1etik 6ra arteko artikulak.

*Bi. 12. artikulua*ren 1. apartatuko g) letra edukirik gabe uzten da, eta q) eta w) letrak honela berridazten dira:

«q) 22/2010 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa, etorkizuneko kirolariak izendatzeko araudia onartzen duena».

«w) 2011ko azaroaren 22ko Agindua, Kultura sailburuarena, «Kultura Bonoa» garatu eta sustatzeko».

*Hiru. 14. artikulua*ren 1. apartatuko f) letra honela geratzen da idatzita:

«f) Lan harremana elkarren arteko adostasunez amaitzeagatik enpresak langileei ordaindutako zenbatekoak. Ondorio horietarako, harreman estatutarioak eta bazkide langileak eta lan bazkideak kooperatibekin lotzen dituztenak lan harremanekin parekatzen dira.

Hala ere, letra honetan aipatutako kontzeptuagatik jasotzen diren lehen 60.000 euroko kopuruari 100eko 40ko integrazio portzentajea aplikatuko zaio».

Lau. 15. artikulua honela geratzen da idatzita:

«15. artikulua. Lan etekin jakin batzuei aplikagarri zaizkien integrazio portzentajeak.

1. Zergaren foru arauaren 18.a) artikuluan aipatzen diren prestazioak era mistoan jasotzen badira, hau da, edozein motatako errentak kapital moduan kobratutako kopuruekin batera jasotzen badira, 19.2.b) eta c) artikuluan aurreikusitako portzentajeak kapital moduan kobratzen diren kopuruei bakarrik aplikatuko zaizkie. Zehazki, prestazioak errenta moduan behin kobratzen hasita, errenta modu aurreratuan berreskuratzen denean, prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratzean zuen antzinatasunaren arabera aplikatuko zaizkio lortutako etekinari behar diren integrazio portzentajeak.

2. Aseguru kolektiboei egindako ekarpenak prestazioekin lotuta dauden pertsonei egotzi bazaizkie, zergaren foru arauak 19.2.c) artikuluen a») eta b») letretan jasotako 100eko 25eko portzentajea aplikatzeko, ulertuko da kontratuaren indarraldian zehar ordaindu diren primen behar adinako aldizkakotasun eta erregularitasuna dutela baldin eta, aurreneko prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igarota, primen batez besteko iraunaldia lau urtetik gorakoa izan bada.

Primen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko, prima bakoitza bere iraunaldiko urte kopuruarekin biderkatu behar da lehenik, guztien batura egin, eta emaitza ordaindutako primen batura osoarekin zatitu.

3. Aseguru kolektiboei egindako ekarpenak prestazioekin lotuta dauden pertsonei egotzi zaizkien kasuetan, zergaren foru arauak 19.2.c) artikuluen b») letrean ezarritako 100eko 25eko integrazio portzentajea aplikagarria izango da edozein lanetarako erabateko ezintasun iraunkorragatik eta baliaezintasun handiagatik jasotako kalte-ordainetan, kasu bietan pentsio plan eta fondoaren araudiak ezarritakoari jarraiki.

4. Kapital moduan jasotako prestazioak zergaren foru arauak 18.a). 6 artikuluan aipatutako bizitza aseguruaren kontratuetatik datozenean eta kontratu horiek aldizkako nahiz aparteko primak dituztenean, etekin osotik prima bakoitzari zein zati dagokion kalkulatzeko, etekin osoa ondorengo zatiduratik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

— Zenbakitzailean, prima bakoitza hura ordaindu zenetik diru kopurua kobratu arte igarotako urte kopuruarekin biderkatzearen emaitza.

— Izendatzailean, prima bakoitza hura ordaindu zenetik diru kopurua kobratu arte igarotako urte kopuruarekin biderkatuta ateratzen diren biderkadura guztien batura.

5. Zergaren foru arauak 19.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, aseguru entitateak banakatu behar du ordaindutako kopuruetan zein zati dagokion ordaindutako prima bakoitzari».

Bost. 16. artikulua honela geratzen da idatzita:

«16. artikulua. Akzioen gainerako aukerak: Integrazio portzentajeak aplikatzeko mugak.

Lanaren etekinak lortzen badira zergaren foru arauak 20. artikuluan aipatutako akzioen gainerako aukerak baliatzeagatik, eta etekin horren zenbatekoa handiagoa bada 20.000 euroko kopurua etekinaren sorreraldiko urte kopuruarekin biderkatuta ateratzen dena baino, hortik gorako etekinari ez zaizkio 100eko 60ko edo 100eko 50eko integrazio portzentajeak aplikatuko.

Aurreko paragrafoan aipatu den zenbatekoa gainditzen bada, soberakina bere osoan konputatuko da».

Sei. 26. artikuluen 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Artikulu honen aurreko apartatueta aipatu zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko nahiz modalitate horretan atzera egiteko, Zentsu Aitorpenaren 036 eredua erabili beharko da, uztailaren 15eko 64/2008 Foru Dekretuak, zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituenak, ezarritakoaren arabera».

Zazpi. 31. artikulua honela geratzen da idatzita:

«3. Aurreko apartatueta aipatu zeinu, indize edo moduluen modalitatea aukeratzeko nahiz modalitate horretan atzera egiteko, Zentsu Aitorpenaren 036 eredua erabili beharko da, uztailaren 15eko 64/2008 Foru Dekretuak, zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituenak, ezarritakoaren arabera».

Zortzi. 63. artikulua 1. apartatua aldatu eta 4. apartatua gehitzen zaio. Hona hemen haien testuak:

«1. Zergaren foru arauak 72.1.5.b artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da aseguru kontratu batek erretiroa duela estaldura nagusia, baldin eta urte bakoitzaren bukaeran erretiro eta mendetasunerako pilatutako hornikuntza matematikoen balioa gutxienez plana hasi denetik heriotzaren edo ezintasunaren kapitalerako ordaindutako primen batura halako hiru bada».

«4. Orobat, aurreikuspen plan aseguruaren hartzaileak enpleguko pentsio plan batera edo enpresen gizarte aurreikuspeneko plan batera mugitu dezake hornidura matematiko osoa edo haren zati bat. Bete beharreko baldintza da lehenengoan partaide izatea edo bigarrenean aseguratu gisa agertzea. Hornidura mugitzeko, aurreko 3. apartatua ezarritako eran jokatu beharko da, eta helmugako tresna posibleak beti izango dira enpleguko pentsio plana edo enpresen gizarte aurreikuspeneko plana, dagozkionaren arabera».

Bederatzi. 64. artikulua honela geratzen da idatzita:

«64. artikulua. Jarduera ekonomikoaren titularrak enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen propioak.

Zergaren foru arauak 73.5 artikuluan jasotakoari jarraiki, eta 73. artikulua horretan ezarrita dauden murrizpen mugak aplikatzeari begira, jarduera ekonomikoaren titularrak egindako ekarpen propioak kontribuzio gisa tratatuko dira honako hauek direnean:

a) Zergaren foru arauak, 72.1 artikuluko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio planei egindakoak, artikulua horretako 4. zenbakian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindakoak, eta aipatutako artikuluko 6. artikuluan aurreikusitako enpresen gizarte aurreikuspeneko planei egindakoak, betiere jardueraren titularra, aldi berean, babeslea eta partaide edo mutualista, edo hartzailea eta aseguratu bada.

b) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei –enplegu arlokoei eta lehentasunezkoei– egindakoak, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, bazkide babeslea eta onuraduna bada».

Hamar. 65. artikulua honela geratzen da idatzita:

«65. artikulua. Autolikidazio osagarriak aurkezteko epea, gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak baliatzen direnean.

Zergaren foru arauak 72.3 eta 74.4 artikuluetan jasotakoaren ondorioetarako, gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak modu aurreratuan baliatzeagatik oinarri ezargarrian bidegabeki egindako murrizpenak berrezartzeko egin behar diren autolikidazio osagarriak eskubideak modu aurreratuan baliatzen direnetik baliatze hori egiten den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko epea amaitu bitartean aurkeztu behar dira».

Hamaika. 66. artikulua honela geratzen da idatzita:

«66. artikulua. Gehiegizko ekarpen eta kontribuzioen tratamendu fiskala ekitaldiko oinarri ezargarrian murriztu ez direnean.

1. Zergaren foru arauak 73. artikulua 3. eta 4. zenbakietan eta 74.2 artikuluan jasotakoaren arabera oinarri ezargarri orokorrean murriztu ez diren ekarpen eta kontribuzioak hurrengo bost ekitaldietan murriztu daitezela eskatu dezakete partaideek, mutualistek, aseguratuak eta bazkideak.

Mugak gaintitzeagatik edo oinarri ezargarri orokorra nahikoa ez izateagatik ekarpenak eta kontribuzioak murriztu ezin izan diren ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan egin behar da eskaera.

2. Oinarri ezargarri orokorretik pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenuak behin kenduta emaitza positiboa noiz ateratzen den lehen ekitaldian, hurrengo bost ekitaldi horien barruan, murriztuko dira soberakinak. Ondorio horietarako, soberakinak antzintasunaren arabera murriztuko dira, hau da, zaharrenak murriztuko dira lehenik. Zergaldiko ekarpenak eta kontribuzioak azken tokian murriztuko dira.

Hurrenkera kronologiko horretan, murrizpen horretan kontribuzioen soberakinak lehentasuna izango du ekitaldi bereko ekarpenen soberakinaren gainetik.

Artikulu honetan aurreikusitako murrizpenak zergaren foru arauak 72., 73. eta 74. artikuluetan ezartzen dituen baldintzak eta mugak errespetatuz egingo dira».

Hamabi. 69. artikulua 4. apartatua honela geratzen da idatzita:

«4. Zergaren foru arauak 44.3.b) eta c) eta 51. artikuluetan jasotako salbuespenak aplikatzeko, eta horretarako soil-soilik, ulertuko da zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela baldin eta, artikulu honetan xedatutakoaren arabera, une horretan eraikin hori bere ohiko etxebizitza bada edo eskualdaketa egin aurreko bi urteetako edozein egunetara arte halakotzat hartu bada».

Hamahiru. 72. artikulua honela geratzen da idatzita:

«72. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik, eta zergaz salbuestea berrinbertitzeagatik.

Ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik araututa dagoen salbuespena aplikatzea aukeratzen bada, zergaren foru arauak 90.3 artikuluan jasotzen duen 30.000 euroko zifra gutxitzeko, zergadunak lehendabizi ondare irabazi salbuespenaren 100eko 15 egotzi behar du etxebizitza saldu duen ekitaldian».

Hamalau. 73. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Epailearen erabakiz, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitza dela eta zergaren foru arauak 90.1 artikuluan aipatutako diru kopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, zergadunak bere autolikidazioan egin ahal izango du artikulu horretan aipatzen den kenkaria.

Kasu horretan, kendutako kopuruek zergadun horri dagokion 30.000 euroko zifra gutxituko dute, hain zuzen ere zergaren foru arauak 90. artikuluan aipatutakoa. Orobat, zergaren foru arauan eta erregelamendu honetan ezarrita dauden gainerako baldintzak eta mugak aplikatuko dira».

Hamabost. 75. artikulua honela geratzen da idatzita:

«75. artikulua. Kenkarirako eskubidea galtzea.

1. Zergaren foru arauak 90. eta 91. artikuluetan eta hogeita batgarren xedapen gehigarrian jasotako kenkarietan, haiek aplikatu ondorengo zergaldietan aurretik egindako kenkarirako eskubidea osorik edo zati batean galtzen bada, zergadunak bi kopuru gehitu behar dizkio beharkizunak bete ez diren ekitaldian sortutako kuota likidoari: Bidegabeki kendutako zenbatekoak gehi Zergen Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen berandutza interesak.

2. Aurrekoa hala izanik ere, zergaduna hiltzen bada bere ohiko etxebizitza izateko asmoz egindako erosketa burutu edo haren eraikuntza lanak amaitu baino lehen, ez da galduko zergaren foru arauak 90. artikuluan jasotakoaren arabera egindako kenkarietarako eskubidea.

Ohiko etxebizitza erosteak dakartzan kenkariak aplikatzen badira etxebizitza-kontuetan sartutako kopuruengatik –90. artikuluko 5.b) apartatua aipatutakoengatik–, kenkariduna izan den saldoari ez zaio aurreko paragrafoan jasotakoa aplikatuko baldin eta heriotzaren egunean ohiko etxebizitza eskuratzeko erabilita ez badago».

Hamasei. 105. artikulua 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Aurreko apartatua xedatutakoaren ondorioetarako, lan errenta jakin batzuei aplikagarri bazaizkie zergaren foru arauak 19., 20. edo 21. artikuluetan aipatutako portzentajeak, errenta horien zenbateko osoa portzentaje horiek aplikatuz kalkulatu da.

Dena den, ordaintzaile berberak ordaintzen dituen lanaren errentak lotuta badaude zergaren foru arauko 21.bis artikuluan etekin irregularretarako ezarrita dagoen baterako mugari, muga horretatik gorako errenten zenbatekoari ez zaizkio integrazio portzentajeak aplikatuko».

Hamazazpi. 126. artikulua 2. apartatuko e) letra honela berridazten da:

«e) Zergaren foru arauak 19., 20. 21., 21bis, 33.3 eta 42.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera aplikatutako integrazio portzentajeak».

Hamazortzi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, bederatzigarrena, eduki hau duena:

«Bederatzigarrena. 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabaziaz salbuestea eta 2012 baino lehenagoko eskualdaketak.

65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazia salbuetsita uzteko exijitzen den eskualdaketa bakarria konputatzeari begira, zeina zergaren foru arauko 44.3.c) artikuluan exijitzen baita, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako eskualdaketak ez dira kontuan hartuko».

Hemeretzi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hamargarrena, eduki hau duena:

«Hamargarrena. Aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioak integratzea.

Zergaren foru arauak hogeita hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondorioetarako, hau ulertuko da:

a) Egindako ekarpenen baturak eta haietatik zuzenean eratorritako etekinenek osatzen dute prestazioen zenbatekoa.

b) Ekarpenen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko, prestazioaren sortzailatzat hartutako ekarpenak baino ez dira konputatuko».

Xedapen indargabetzaile bakarria.

Indarrak gabe geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Amaierako xedapen bakarria. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2012ko abuztuaren 28a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(1785) (8260)